

arratia

bidean gagoz

urtarrile 2020 enero
n° 40 zk.

Tokiko 2030 Agenda



**ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNITATEA**

Arratiako Udalen Mankomunitatea
gestionará 5,3 millones / 3

“Alkarregaz” proiektua
Gurutze Gorriaren eskutik / 13



ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

Arratiako Udalen Mankomunitatea / Elexalde 49, Igorre- 48140
Tlf: 94 631 17 17 / Fax: 94 631 92 15
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org / www.arratia.net



3

Presupuesto de
Arratiako Udalen
Mankomunitatea

4

Arratia pone
rumbo a la **Agenda**
2030 Local

6

Ekonomia zirkularra
toki-mailako heburuak

8

Elkarrizketa: **Andere**
Ortuzar, AUMren
presidentea

10

Formación
especializada
para jóvenes

12

Arratiako Egoitza
cumple **25 años**

15

Coro de Arratia,
69 años cantando
por Santa Águeda

alkorregoz

Seguruenik, harrituta egongo zara Arratiako Udalen Mankomunitateak editatzen dauen *Bidean gagoz* aldizkariaren ale bat esku artean barriro izateaz. Hainbat hilabetez ezer argitaratu barik egon eta gero, kalera urten gara barriro be, gaur egun emoten doguzan zerbitzuei eta garatzen doguzan proiektuei –askotan, eskualdean behar egiten dabene beste eragile batzuk batera– buruzko informazioa emoteko helburuagaz, batez be gai honeei jagokenez: ingurumen-jasangarritasuna, gizonen eta emakumeen bizikidetzeta- eta bardintasun-balioen sustapena, enplegarritasuna hobetzeko prestakuntzea eta gure gazteei berariaz zuzendutako ekimen asko. Orrialde honeetan, gure jardurearen zati txiki baten barri jasoko dozu. Espero dogu zure intereskoa izatea. Iradokizunak jasoteko prest gagoz, argitalpen hau **hurbilekoa eta erabilgarria** izan daiten **arratiarrentzat**.

Seguramente te sorprenda tener de nuevo en tus manos un ejemplar de "*Bidean gagoz*", revista que edita Arratiako Udalen Mankomunitatea. Tras unos meses de silencio salimos de nuevo a la calle para informar sobre la actualidad de los servicios que prestamos y los proyectos que desarrollamos, –muchas veces en colaboración con otros agentes de la comarca–, especialmente en el ámbito de la sostenibilidad medioambiental, la promoción de valores de convivencia e igualdad entre hombres y mujeres, la formación para mejorar la empleabilidad, y muchas iniciativas especialmente orientadas a nuestra juventud. En estas páginas encontrarás una pequeña parte de nuestra actividad, que esperamos sea de interés. Estamos abiertos a recibir sugerencias para hacer que esta sea una publicación **cercana y útil para vecinas y vecinos**.



Andere Ortuzar
AUMko presidentea

2020ko aurrekontua

Arratiako Udalen Mankomunitatea gestionará este año un presupuesto de 5,3 millones de euros, 4,69% mayor que en 2019. La cuenta presupuestaria se aprobó el 18 de diciembre con los votos favorables de EAJ/PNV y la abstención de EHBildu.

Arratiako Udalen Mankomunitateak 5.299.294,31 euroko aurrekontua kudeatuko dau aurtan, hau da, % 4,69 gehiago, 2019ko aurrekontuaren aldean. 2020ko ekitaldi ekonomikoan, 2.281.999,44 euro bideratuko dira guztira Arratiako Egoitzara, aurreko ekitaldian baino % 4,36 gehiago. Aurrekontua joan dan abenduan onartu zan, EAJ/PNV-ren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz.

Aurrekontu partida nagusietako bat, 979.817,14 eurokoa, zerbitzu honeetara bideratuko da: gizarte larrialdiko laguntzak, etxez etxeko zerbitzua, gizarte eta hezkuntzako esku-hartze programak, inoren laguntza behar daben senideak zaintzen dituen personei laguntzeko "Zainduz"

programea, adikzinoak prebenduteko zerbitzua, bardintasuna sustatzeko zerbitzua, Arratiako Gurutze Gorriari laguntzeko programea eta desgaitasun funtzionala daukien personak gizarteratzeko laguntza, besteak beste.

Aurrekontuaren partidarik handiena "Uriko hondakin solidoen bilketa eta tratamendua" da, 1.055.484,91 eurokoa. Atal horren barruan, zerbitzua suspertuko da, lanpostu barria gehituta; langile horren zeregina izango da eukiontzien irlak mantentzen eta garbitzea, zerbitzu hori hobetzeko helburuagaz.

Argiztapen publikoaren mantentze-lanen aurrekontuak gora egin dau nabarmen: 2019an 174.175,94 euro izatetik, ekitaldi honetan 246.647,15 euro izatera pasau da, prebentzino-lan gehiago egiten dabilzalako. Atal horren barruan, efizientzia energetikorako neurriak ezartzen jarraituko da. Azken urteotan, diru-aurrezte handia ekarri dabe konsumo elektrikoan, eta horrek ingurumena zaintzeko bide egokian jartzen dau AUM.

Bestetik, aurrekontuak enplegua sustatzeko partidea mantentzen dau: 78.300,00 euro;



programa hori Galdakaoko eta Zornotzako udalakaz batera gauzatzen da. Aurtengo programearen barruan, sei lanpostu eskaini dira. Udalen ekarpenari jagokonez, % 15,4ko igotzea egon da Gizarte Zerbitzuen Atalean: 136.008,64 eurotik 156.922,87 eurora pasau da. Arratiako Egoitzaren aurrekontuari jagokonez (onartutako aurrekontutik ia 2,3 milioi euro jasoko ditu), nabarmentzekoak dira ibilgailu egokituak eta fisioterapiako materiala eskuratzerako bideratutako partidak. ●

La Agenda 2030 Local

Objetivos de Desarrollo Sostenible

Nazio Batuen Erakundeak 2015ean onartutako 2030 Agendak nazinoarteko konpromisoa adierazoten dau, hain zuzen be, globalizazioak dakarzan gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-erronkei aurre egiteko nazinoarteko konpromisoa, personak, planeta, oparotasuna eta bakea erdigunean jarrita.

La Agenda 2030 es la nueva agenda internacional de desarrollo que se aprobó en septiembre de 2015 en el seno de Naciones Unidas. Esta Agenda pretende ser un instrumento para la lucha a favor del desarrollo humano sostenible en todo el planeta, cuyos pilares fundamentales son la erradicación de la pobreza, la disminución de las vulnerabilidades y las desigualdades, y el fomento de la sostenibilidad.

Es una oportunidad única para transformar el mundo antes del 2030 y garantizar los derechos

humanos para todas las personas. **Representa el compromiso internacional para hacer frente a los retos sociales, económicos y medioambientales de la globalización, poniendo en el centro a las personas, el planeta, la prosperidad y la paz, bajo el lema de “no dejar a nadie atrás”.**

La Agenda 2030 es universal. Con ella se ha reconocido que las necesidades de desarrollo son las mismas para todas las personas, independientemente del lugar donde vivan. Todas las personas necesitan de salud, educación, vivienda, empleo, energía, igualdad, paz y ecosistemas sanos para vivir dignamente, tanto ahora, como las generaciones futuras.

Bajo el título **“Transformando nuestro mundo: Agenda 2030 para el desarrollo sostenible”**, el documento final adoptado por los Estados miembros define 169 metas y 17 objetivos, los denominados **Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS)**. ●

GJHen alderdi berezia da **oparotasuna sustatzeko eta aldi berean planeta babesteko** neurriak hartzeko eskatzea herrialde guztiei, izan aberatsak, pobreak edo diru-sarrera ertainekoak.



De la Agenda 21 a la **Agenda 2030 ARRATIA**

Arratiako Udalen Mankomunitatea bere Tokiko 2030 Agenda garatzen dabil, Euskadiko udalerrri eta mankomunitate askogaz batera. Agenda hori Agenda 21 dalakoaren ondorengoa da, eta, ikuspegi zabalagoa izateaz gain, tokiko inplikazioa eskatzen dau.

El concepto Agenda 21 surgido en la Cumbre de Río de Janeiro de 1992 (Cumbre de la Tierra), deja paso a la Agenda 2030 aprobada por Naciones Unidas hace casi cinco años. Si bien la Agenda 21 se ha consolidado notablemente en muchos municipios, la Agenda 2030 presenta la oportunidad de revitalizar y actualizar el concepto del desarrollo sostenible desde un enfoque más amplio. Por todo ello, Arratiako Udalen Mankomunitatea está trabajando, junto a numerosos municipios y mancomunidades de Euskadi, en el desarrollo de

su propia Agenda 2030 Local. Primeramente se va a realizar la evaluación del actual Plan de Acción de la Agenda 21, "ARRATIA 2020", para conocer el grado de desarrollo alcanzado en estos últimos años en el campo de la sostenibilidad a nivel comarcal. Con esto se dará por concluido dicho plan y se trabajará para elaborar uno nuevo, pero desde la perspectiva de la Agenda 2030 Local.

Este nuevo Plan de Acción "AGENDA 2030 ARRATIA", permitirá abordar la sostenibilidad desde un enfoque más am-

plio y de carácter estratégico. Se trabajará con las diferentes áreas de la mancomunidad para establecer las metas, objetivos y acciones a desarrollar durante los próximos años y se facilitará la participación ciudadana en todo el proceso.

Y es que, la Agenda 2030 ofrece en todos los niveles de la administración pública un marco homogéneo para la planificación del desarrollo sostenible. En el caso de los municipios o mancomunidades, esta Agenda puede producir el cambio necesario para coordinar todas las políticas locales que favorezcan un desarrollo sostenible. **Municipios o mancomunidades podrán medir su contribución al cumplimiento global de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).** ●



**ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNITATEA**

**BOLUMEN HANDIKO
HONDAKINEN DOAKO
BILKETA ZERBITZUA**

Kalean utzi **AURRETIK** dei iezaguzu

94 631 17 17

Gainera, Igorreko Garbigunera eramateko aukera duzu - 94 631 52 91



Ekonomia zirkularra

Arratiako Udalen Mankomunitatea ha empezado a dar pasos para favorecer una transición hacia un modelo económico más sostenible, que preserve nuestros recursos naturales, proteja el medio ambiente y asegure la calidad de vida de las personas. Además, en el marco de la Agenda 21 Escolar y del programa Gaztedi Arratia este curso se está trabajando sobre la Economía Circular.

Ekonomia linealaren eris-pideei jarraituz, "erabili eta bota" dinamikan sartu gara bete-betean, eta, horren ondorioz, baliabide mugatuak agortu doguz. Era berean, eragin negatiboak sortu doguz (kutsadura, hondakinak, isuriak...), eta, hortaz, egungo egoera ez da jasangarria.

Egoera honeri aurre egiteko, funtsezkoa da gogoeta egitea, baita xede hori beteteko ekintzak egitea be. Horretarako, ekonomia linealak sustatzen dituan konsumo-azturak baztertu behar doguz, eta jasangarriagoa izan leitekean eredu ekonomiko baten alde egin behar dogu, zirt edo zart. Konponbidea norabidea aldatzea da, hau da, ekonomia zirkularraren alde egitea.

Balio erantsia sortzeko helburuagaz, gaur egungo materialak eta produktuak ahal dan guztietan partekatzea,

errentan hartzea, berrerabiltea, konpontzea, barritzea eta berziklatzea eskatzen dauen ekoizpen- eta konsumo-eredua da ekonomia zirkularra. Holan, produktuen bizi-zikloa handitu egiten da. Honeek dira ekonomia zirkularraren oinarriak: kapital naturala konserbetea eta hobetzea, produktuen eta materialen

bizitza ahalik eta gehien luzatzea eta sistemaren eraginkortasuna sustatzea.

Gure eskualdean, pausuak emoten hasi gara norabide horretan. Izan be, Arratiako Udalen Mankomunitatea buru dan bi programa garatu doguz. Lehenengo eta behin, Eskolako Agenda 21en esparruan –agenda hori Igorre eta Dimako ikastetxeetan, Arratia Institutuan eta Zulaibar Lanbide Ikastegian garatzen da, 2005etik–, hain zuzen be, ekonomia zirkularra lantzen dabil ikasturte honetan. Urtero, zentroaren eta udalerriarren diagnostikoa egiten dabe



aukeratutako gaiaren inguruan, bai eta ekintza- eta komunikazio-plan bat be, eta, ikasturtearen amaieran, ikas-tetxeen arteko foroak egiten dira udaletan, konpromisoak eta iradokizunak planteetako.

Bestetik, Gaztedi Arratia programaren barruan, ekonomia zirkularrari buruzko prestakuntza-saioak egiten dabilz; saio horreek Zulaibar Lanbide Ikastegiko eta Arratia Institutuko ikasleei zuzenduta dagoz. Etorkizunean, bisita



teknikoak egingo dira, gure inguruko esperientzien barri jasoteko. ●

PRINCIPIOS DE LA ECONOMÍA CIRCULAR

1. **El residuo se convierte en recurso:** Todo el material biodegradable vuelve a la naturaleza y el que no es biodegradable se reutiliza.
2. **El segundo uso:** reintroducir en el circuito económico aquellos productos que ya no corresponden a las necesidades iniciales de los consumidores.
3. **La reutilización:** reusar ciertos residuos o ciertas partes de los mismos, que todavía pueden funcionar para la elaboración de nuevos productos.
4. **La reparación:** encontrar una segunda vida a los productos estropeados.
5. **El reciclaje:** utilizar los materiales que se encuentran en los residuos.
6. **La valorización:** aprovechar energéticamente los residuos que no se pueden reciclar.
7. **Energía de fuentes renovables:** eliminación de los combustibles fósiles en los procesos productivos, reutilizar y reciclar.

TOKI-MAILAKO HELBURUAK

- Hondakinak sortzeko tasa txikitzea.
- Hondakinen kudeaketa jasangarria.
- Material zirkularra erabilteko tasa handitzea (konsumo zirkularra).
- Tokiko enplegua sortzea ekonomia zirkularraren esparruan: enplegu-nitxo barriak sortzea, jarduera ekonomiko barriak sortzea (enplegu berdea).
- Konsumo arduratsua eta tokiko produktuen konsumoa sustatzea.
- Hurbileko ekonomia indartzea.
- Elikagaien xahuketa murriztea.

ANDERE ORTUZAR

Arratiako Udalen
Mankomunitatearen presidentea

“Mankomunitateak arratiarrei ondoizatea emongo deutesen tresna izan behar dau”

Andere Ortuzar es desde el pasado mes de julio presidenta de Arratiako Udalen Mankomunitatea. Concejala de EAJ-PNV en el Ayuntamiento de Igorre, cuenta con un amplio bagaje en política municipal, con 16 años en el consistorio, ocho de los cuales y como parte del equipo de gobierno, estuvo al frente de las áreas de Acción Social y Cultura.

Ze helburu planteau dira epe laburrean AUM- rentzat?

Mankomunitateak udalen zerbitzura egon behar dau. Hareen menpe gagoz. Nire erronka da mankomunitatea osotzen daben bederatzi udalerriaz lan egitea. Nire ustez, beharrezkoa da hondakinen bilketea berrantolatzea. Eraginkorrago egin behar dogu bilketa hori. Arazo puntualak detektetan gabiliz bete-betean, azkarrago jarduteko asmoz. Horrezaz gainera, maiztasun handiagoko bilketea behar daben alderdiei konponbidea emoteko lanean be bagabiz. Berzikletearen esparruan aurrera egin badogu be, sensibilizazio- eta konzienziazio-lana egiten jarraitu behar dogu. Bestetik, hurrengo urteetarako aurrekontuek eragin bere-



zia eukiko dabe Gizarte Ongizaterako Arloan. Gizarte-zerbitzuen zorroari buruzko dekretua landu behar dogu, eta, ildo horretatik, gure prestazinoak zabaldu behar doguz. Zerbitzua emon behar dogu hiru mailatan: udalerrian, eremuan eta eskualdean. Ekonomiari jagokonez, udalek esfortzua egin beharko dabe, baina lan egin behar dogu ildo horretan.

Martxan jarri gurako zeunken proiektu personalen bat badaukazu?

Ez da proiektu personala, beharra baizik. Nire ustez, garrantzitsua da Mankomunitatearen Plan Estrategikoa egitea, mankomunitatearen egoera gaur egun zein dan aztertzeko. Planaren helburua izango da etorkizuneko garapenerako behar dan moduko estrategia bat ezartea. Plan estrategiko horrek, mankomunitatearen garapenaren etorkizuneko eredia kontuan hartuta, adostasuna izan beharko dau oinarri, eta, era berean, hurrengo urteetan jarraitu beharreko lan-ildoak zehaztuko ditu.

Eskualde honetako garapenari eta hazkundeari jagokonez, ze funzino gurako zeunke AUMek izatea?

Mankomunitateak beharrezko eta baliozko tresna

izan behar dau, zerbitzua emoten dauen udalerrietan bizi diranei ondoizatea ekarriko deusena. Funtsezkoa da udalek alkarlanean jarduteko ideia sustatzea guztion artean, eta mankomunitatearen bidez egin behar da lan hori. Izan be, adibidez, ez litzateke egingarria izango udalerrri batek zerbitzu bikotxak eskaintzea inguruko herriei, baldin eta hori errentagarria ez bada. Horretarako, baterako zerbitzuak sortu behar doguz, bai eta garapen jasagarria eta gizarte-ehuna indartuko daberen politiken aldeko apustua egin be. Gainera, horrek bat egiten dau 2030 Agendak dituan helburuakaz.

Zelan gurako zeunke arratiarrek mankomunitatea ikustea?

Mankomunitateak hondakinen bilketea eta gizarte-zerbitzuak baino askoz zerbitzu gehiago eskaintzen ditu. Legegintzaldi honetan, hau lortu behar dogu: mankomunitatean lan egiten daberen profesional guztien lana erakustea eta eskualde osora ailegetea: argiztapen publikoaren mantentmentua, jasagarritasuna, gazteria, bardintasuna, menpekotasunen prebentzinoa, Arratiako Egoitza, bake-epaitegiak... Laburbilduz, zerbitzuak errentagarri bihurtzeko gai izan behar dogu, eskualdeko biztanle guztien mesedetan. ●

“Arratia es un lugar para disfrutar”

¿Cuál es su rincón favorito de Arratia?

Todos los pueblos de Arratia tienen rincones con encanto. Pero en esta ocasión voy a barrer para casa y me quedo con las vistas desde el barrio de San Kristobal en Igorre.

¿Qué recomendaría a visitantes?

Arratia es un lugar perfecto para disfrutar y descansar. Ofrece variedad de posibilidades, ya sea para pasear por increíbles parajes, conocer un poco mejor la historia vasca, adentrarte en todos sus pueblos o simplemente para disfrutar del entorno. Arratia ofrece numerosos recursos turísticos para el visitante.

¿Ha subido alguna vez hasta la cruz del Gorbea?

Sí. Muchas. Aunque últimamente menos de lo que me gustaría. La última vez que estuve fue hace unos dos años.

¿Qué paseo recomendaría para disfrutar de la naturaleza en el entorno?

Hay un recorrido que hice hace poco y que me gustó mucho. Comienza en Zeanuri en el paraje de Zubizabal y pasando por la zona de arbolado con las cabañas colgantes en los árboles se llega hasta las faldas del monte Motxotegi. Desde ahí llegas a Ubidea. Es un recorrido muy bonito y se puede hacer en familia.



Autobús nocturno también en las fiestas de 2020

El servicio se inició el día 8 de junio, con los "San Antonios" de Igorre y se prolongó hasta los "Santacruces" de Galdakao en septiembre, e incluyó la celebración de "Los Cármenes" de Zornotza-Amorebieta, además de todas las fiestas de los municipios de Arratia. Del mismo modo, el día 7 de diciembre se habilitó un autobús lanzadera entre Lemoa y Zeanuri, para dar servicio a quienes acudieron a la Feria del Disco y Libro vasco de Durango.

La prestación de este servicio es posible gracias al convenio firmado entre Arratiako Udalen Mankomunitatea y la Diputación Foral de Bizkaia que subvenciona el 70% del coste del servicio. En total, los vehículos destinados a este programa llevaron a cabo 63 viajes, entre las 2:30 y a las 5:00 horas, que hicieron posible el traslado de 2.750 jóvenes de Arratia, de forma segura, disfrutando de las fiestas sin necesidad de coger el vehículo privado. Dada la valoración positiva que tiene este servicio Arratiako Udalen Mankomunitatea continuará prestándolo durante este año 2020.



Formación para jóvenes

Gaztedi Arratia programearen esparruan, Zulaibar Lanbide Ikastegia jarri zan martxan abenduan, hau da, 16-35 urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaro espezializatua, makina-erremintaren programazioari eta zenbakizko kontrolari buruzkoa.

En el marco del programa Gaztedi Arratia de AUM y gracias al apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia, el pasado mes de diciembre se puso en marcha en Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegia un curso especializado de 200 horas sobre programación de máquina herramienta y control numérico por computadora (CNC) para jóvenes de entre 16 y 35 años.

Este curso proporciona los conocimientos teóricos y prácticos necesarios para responder a las necesidades de las empresas a la hora de cubrir puestos de trabajo con personas jóvenes cualificadas menores de 35 años. El objetivo es ofrecer una formación adaptada básica al área producción y taller, garantizando una cualificación profesional adecuada a las necesidades del mercado laboral –cada vez más competitivo–, con una tecnología y metodología actuales.

Al término de la formación, a mediados del mes de marzo, quienes toman parte serán capaces de interpretar los planos y los procesos de fabricación de piezas bajo las normas y especificaciones técnicas adecuadas, identificar las máquinas para cada operación de mecanizado, aplicar los criterios de preparación, realizar un primer mantenimiento y programar las máquinas herramientas convencionales y de control numérico siempre bajo normas de calidad, seguridad y prevención.

El curso que se desarrolla de lunes a jueves, incluye una parte de programación de máquina herramienta convencional (torno, fresadora, centro de mecanizado...), mecanizado de máquina herramienta y CNC, y una parte dirigida a la prevención de riesgos laborales. 11 personas están tomando parte en esta formación para mejorar su empleabilidad. ●

Mendekotasunen **Prebentzinorako** **Zerbitzua**

Prevención de Adicciones desarrollará este curso escolar en los 9 centros de Arratia programas sobre sexualidad-afectividad, uso y abuso de drogas legales-ilegales, educación en valores y uso responsable de las nuevas tecnologías.



Arratiako Udalen Mankomunitateko Mendekotasunen Prebentzinorako Zerbitzuak 20 urtez baino gehiagoz egin dau lan arlo horretan, eta hainbat programa eskaini ditu, eskolaren, familiaren eta komunitatearen esparruetan batez be. 2019 – 2020 ikasturteari begira, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta erdi- eta goi-mailako zikloetara bideratutako programak diseinatu dira; halanda ze, posible izango da Arratian eskolatutako ikasleen gehiengoak programa horreetan parte hartzea.

Lehenengo eta behin, jarraipena emon jako Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik Batxilergo eta/edo goi-mailako zikloetara bitarteko ikasleei zuzendutako programa bati, zeinak sexualidadea eta afektibidadea lantzen dituan. Programearen helburua da gazteek euren sexualidadea zorientasunez,

osasunez eta erantzukizunez bizitea.

Bestetik, legezko eta ez-legezko drogak oinarri dituan programa bat indartu da. Kasu honetan, edukiak ikasleen adinaren arabera egokitzen dira, apurka-apurka. Prebentzinoaz gain, arrisku-faktoreak murriztean be jarten da indarra. Programearen helburua da tabakoa, alkohola, kalamua eta beste droga batzuk kontsumitzearen ondorioei buruzko informazioa emotea, bai eta lehenengo konsumoak atzeratzea be –saihestea ez bada–.

Programetako hirugarrenak balioetan oinarritutako hezkuntzak daukan garrantziaren inguruko gogoeta egiten dau, eta, holan, ikasleak prestetan ditu, eguneroko talde-presinoari zelan aurre egin jakin dagien, ikasleen adina eta ingurua kontuan hartuta. Oinarritzko

balio unibersalak ditu oinarri, eta, bertan, hainbat estrategia metodologiko erabilten dira, aldeztatik adostutako edukiak landu ahal izateko: filmak, dokumentalak eta jolasak, besteak beste.

Programetako azkenean, hainbat prestakuntza-tailer egiten dira, teknologia barrien –besteak beste, sare sozialak, Internet edo sakelako telefonoa– erabilerean jatorria daukien mendekotasun barriei aurre egiteko. Halanda zen, teknologiek adingabeen alderdi emozionalean daukien eragina landuko da. Prestakuntza horretan, sakelako telefonoak, Internet eta abar gehiegi erabilteak dituan ondorio negatiboen inguruko gogoeta egingo da. Izan be, ohitura horrek nabarmen egin dau gora umeen eta gazteen artean.

Guztira, aurreikusita dago 1.400 ikasle inguruk hartuko dabela parte programa horreetan. Aldi berean, berbaldiak eta eskolak egingo dira gurasoakaz. Gainera, guraso arratiarrek zerbitzua erabilteko aukerea daukie. Ildo horretatik, aholkularitza personalizaua eta guztiz pribadua eskaintzen jake seme-alaben arrisku-jokabide barriak edo arrisku bakoak dirala-ta kezkatuta dagozan gurasoei. Tel: **688643305 (Almudena Etxebarria)**. ●



Arratiako Egoitzak 25 urte bete ditu

Arratiako Egoitza cumpli3 25 a3os en 2019. Inaugurada en 1994, a iniciativa de Arratiako Udalen Mankomunitatea, el centro se ha convertido en un referente en atenci3n sociosanitaria.

Diman, Bizkaiko lekurik ederrerenetako baten, Arratiako Egoitzak zilarrezko ezteiak ospatu zituan joan dan urtean, 2019an. 1994an inaugurau zan, eta, Arratiako Udalen Mankomunitatearen ekimenez –Dimako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzegaz–, zentroa arreta soziosanitarioa emateko eredu bihurtu da, etenbako barritze-programen bidez eta aurrerapen guztiak sartuz geriatriaren alorrean.

Arratiako Egoitzak 60 plaza eskaintzen ditu egoitzan bertan, eta beste 20, barriz, eguneko zentroan. Osakide-

tzak saria emon deutso egoitzari, bertako belaunaldien arteko jarduerak dirala-ta. Horrez gain, profesionalen talde osoa dauka, eta, horren barruan, besteak beste, mediku propioa, psikologoa, fisioterapeuta, animazino psikogeriatrikoa, erizainak, eta laguntzaile dinamiko eta gazteak dagoz. Langile horreek guztiek bete-betean egiten dabe lan adinekoen ongizatearen mesedetan.

Egoitzaren 25. urteurrena dala-ta, egoitzak ekitaldi bat antolatu eban maiatzean. Bertan, Gizarte Ekintzako jarduneko foru diputatu Isabel S3nchez

Robles izan zan, bai eta AUMko arduradunak eta zentroaren erabiltzaileak, haren senideak eta egunero bertan lan egiten dabenak be.

Erakundearen etenbako barritze- eta hobekuntza-prozesuan, 2013an, “Libera-Care” Arauaren Egiatagiria jasoteko lanean hasi ziran; 2015ean jaso eben, eta, harrezkero, erakundea lotura fisiko nahiz kimikorik bako zentro libre lez dago egiaztatuta. Halanda ze, adinekoen bizi-kalidatea hobetzen daben laguntza-aukerak eskaintzen jakez egoiliarrei eta senideei. Eredu hori bete-betean dago sartuta zentroan; kudeaketan eta kontrolean oinarrituta lan egiten da, ikuspuntu etiko batetik eta pertsonen duintasunean zentratuta.

Egoiliarren bizi-kalidatearen abantailak argi eta garbi dagoz. Izan be, loturak desgerrarazoteak jangura, tonu muskularra, koordinazioa eta oreka hobetzen ditu, eta onura psikoemotional handiak ditu. Gainera, atrofiak, ansiedatea eta abar jasateko arriskua murrizten dau. Lan egiteko modua dala-ta –hain zuzen be, lan hori personetan eta haren ongizatean dago zentratuta–, Arratiako Egoitza erreferentziako zentro bihurtu da Estaduan. ●

Alkarregaz

El proyecto “Alkarregaz” pone en contacto al alumnado de 6º de Primaria de todos los centros de Arratia para facilitar nuevos vínculos antes de su paso al instituto.

“Alkarregaz” proiektua 2015ean sortu zan Arratiako Udalen Mankomunitatearen eta Gurutze Gorriaren eskutik, Arratiako bederatzi udalerrietako 6. mailako ikasleen beharriaz erantzuteko asmoagaz. Herri bakotzeko eskoletan prestakuntza-aldia amaitutakoan, ikasle horreek Arratia Institutuan matrikuletan dira, ikasketak jarraitzeko. Aldaketa handia da, eta hareentzat gogorra izan leiteke.

Proiektuaren helburua bikotxa zan: alde batetik, nerabeei laguntzea aldaketa-prozesu horretan, eta, bestetik, eskualdean finkatuta egotea sustatzea. Izan be, urteek aurrera egin ahala, eta hainbat arrazoi dirala-ta, Arratia-

gazko loturea galdu egiten da apurka-apurka, eta, hori dala-ta, proiektuaren helburua da lotura barriak sortzea, gazteei finkatze horri eusten laguntzeko.

Bestetik, ikasle askok ez dabe Igorreko Institutuan ikasten, eta, ildo horretatik, programa onuragarria da. Izan be, nahiz eta Arratian ikasten ez jarraitu, tokiko mailan hartu-emonak eukiten jarraitzeko bidea izan leiteke. Zeharka, programeari esker, jakin batzuk landu leitezke, besteak beste, alkarregazko errespetua, emakumeen eta gizonen arteko bardintasuna eta euskerea, besteak beste.

Proiektuaren iraupena bost hilabetekoa da –urtariletik maia-



tzera-, eta bilera bat egiten da hilean. Lehenengo topaketak Igorreko Institutuan antolatzen dira. Bertan, hartu-emonak eta konfiantza sustatzeko hainbat dinamika eta jolas egiten dira. Jarraian, eguneko urteera bat antolatzen da, eta, amaitzeko, astebeteko alkarbizitza egiten da.

Hori guztia egin ahal izateko, Gurutze Gorriak boluntarioen sare batez egiten dau lan; boluntario horreek funtsezkoak dira ekimena garatzeko. Gurasoek oso ondo balorau dabe programea, eta joan dan urtean 94 gaztek hartu eben parte. ●



“Ilgoran”

“Ilgoran” es el nuevo nombre de la escuela de empoderamiento de Arratia. Este término está lleno de carga simbólica, ya que fue el primer grupo feminista de Arratia. Ofrece un programa de octubre a mayo que favorece espacios de encuentro para aprender, construir y compartir experiencias a través de cursos, apoyando los procesos de empoderamiento de las mujeres de la comarca. ¡Anímate y participa!
Tel: 94 631 17 17 / 688 62 73 93.

Berdintasuna2.arratia@
bizkaia.org

Arreta psikologikoa

2018an, guztira, AUMko gizarte-langileek 16 emakumeri emon eutseen arreta. 2019an, 27 emakumeri. Ha-ta guzti be, datu horreek ezin dira indarkeria existentaren arazoaren adierazletzat jo, baizik eta gure zerbitzuen eskaerearen gorakadatzat. Hori dala-ta, urtearen hasieratik, arreta psikologikoa jasoteko zerbitzuaren estaldureak gora egin dau. Halanda zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Arreta Psikologikorako Zerbitzuak mankomunitatearen egoitzan eskaintzen dauen ordu-kopuruak gora egin dau. Astelehenetik eguenera: 08:00etatik 15:00etara.



La Caixak eta AUM hitzarmena barriztau dabe

AUM renueva su convenio con la Obra Social “la Caixa” para ayudar a niñas y niños de familias con escasos recursos a sufragar los gastos derivados de actividades extraescolares.

Beste behin be, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) lankidetzak hitzarmena sinatu dau “la Caixa” Gizarte Ekintzagaz, baliabide gitxiko familietako umeek eskolaz kanpoko ekintza osogarrien gastuak ordaintzeko helburuagaz, batez be Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zikloetan. Orokorrean, ekimen honen helburua da umeen artean garapen intelektual, fisiko eta sortzailerako aukera bardingatasuna sustatzea. Halanda ze, garapen hori lortzeko, prekariedade ekonomikoaren eragina murriztu gura da.

Hitzarmen honen bitartez, “la Caixa” Gizarte Ekintzak 4.600 euro emongo deutzaz Arratiako Udalen Mankomunitateari, adierazotako

helburua lortzeko. Akordio horri esker, Arratiako 7 eta 16 urte bitarteko adinbakok kostu ekonomikoak daukien ekintzak egin ahalko ditue ikasturte honetan. Diru-laguntza horreek barik, euren familientzat oso gatxa izango litzateke aitatutako gastuak ordaintzea. Laguntzak batez be hezkuntza-formakuntzaren osogarri diran jardueretatik (errefortzu akademiko), kirol-jardueretatik (igeriketa, futbola eta taekwondo) edota jarduera zientifikoetatik (robotika) eratorritako gastuak ordaintzeko erabiliko dira.

Arratiako Udalen Mankomunitatearen Gizarte Zerbitzuek diru-laguntzen hartzaileak aukeratzeko ardurea hartu dabe. Aukeraketea prekariedade ekonomikoaren eta horri lotutako beste egoeren arabera egingo da. Joseba Argoitiak sinatu dau akordioa, “la Caixa” Gizarte Ekintzaren ordezkari lez, eta Andere Ortuzarrek, Arratiako Udalen Mankomunitatearen presidentea dan aldetik. ●

Agate Deuna eta Arratiako Korue



Víctor Sierrasesumaga y Juan Bernaola fundaron en 1951 el Coro de Arratia, que desde hace 69 años sale a la calle con sus coplas por Santa Águeda recogiendo la voluntad para fines benéficos.

Arratiako Korue 1951. urtean sortu zan, lagun biren ekimenari jarraituz: Víctor Sierrasesumaga eta Juan Bernaola. Hasiera baten, kide guztiak (gizonak) Arratiako haranekoak ziran, eta hortik jatorko izena. 1965ean, andrak eta umeak sartu ziran, 60 ahots euki arte.

Agate Deunaren figura taldearen jardue-reari lotuta egon da hasieratik. Mende erdia baino gehiago pasau ondoren, Koruek urteko hile batzuetan batzeko ohitureagaz jarraitzen dau, koplak mota ez-bardinak prestetako asmoz. Orain dala 69 urtetik hona eta urte baten be huts egin barik, kalerik kale abesten ditue koplak horreek, Agate Deunaren bezpera guztietan.

Arratiako Koruek helburu altruista euki dau betidanik; koplak abestu eta dirua baten dabe, ongintzan eta alkartasunean oinarrituta dagozan helburuetara zuzentzeko. Horretarako, alkarteak udal askoren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, finantza- eta erlijio-entidade batzuen edo/eta Guggenheim Bilbao Museoaren laguntza ekonomikoa dauka, baita persona anonimo batzuen be.

Azken urteotan, batutako dirua Bizkaiko Caritasi emoten jako, baina ez da beti holan izan. Bitxikeria bat: 1968. urtean, lurrikara handi batek Sizilia astindu eban, eta Arratiako Koruek urte horretan batutako dirua uharte haretara bidali eban, kaltetuei laguntzeko asmotan.

Gaur egun, Arratiako Korue Garazi Navas gazteak zuzentzen dau, eta 45 lagun dagoz guztira. Aurten be, zezeilaren 4an, kalera aterako dira Arratian eta Bilbon, Agate Deunari ohiko eskaintzea egiteko. ●



Santa Ageda (Arratiako koplak)

Santa Ageda, Ageda gure martiri maitea etxe honeri emon eiozuz zorion eta bakea.

Begira zeruan gora Ageda han egongo da, alaitasuna ekarri dogu Arratiatik Bilbora.

Santa Ageda maitea Zeruko dohaiz betea euskaldunari zabal eiozu zorionaren atea.

Santa Águeda 2020 Recorrido

- 07:45 - Salida autobuses (Igorre)
- 08:00 - Misa en Areatza
- 08:30 - Salida
- 08:45 - Zeanuri
- 09:15 - Dima
- 09:30 - Igorre
- 09:45 - Lemoa
- 10:00 - Amorebieta - Etxano
- 10:45 - Salida
- 11:15 - Basílica de Begoña
- 12:00 - San Anton - Mercado de la Ribera - Museo Vasco - Ayuntamiento de Bilbao - Laboral Kutxa - BBVA - El Corte Inglés - Kutxabank
- 13:45 - Palacio Foral
- 14:30 - Guggenheim - Bilbao
- 15:00 - Comida
- 17:00 - Jardines de Albia - Ensanche - Plaza Eguillor - La Viña - Gran Vía - Arenal
- 18:30 - San Nicolás - Santos Juanes
- 19:20 - Catedral de Santiago
- 19:45 - Despedida en Plaza de Arriaga
- 20:15 - Galdakao
- 20:40 - Bedia
- 21:00 - Arantzazu
- 21:15 - Artea
- 21:30 - Areatza

Badakizu argazki hau Arratiako ze lekutan dagoan aterata?



¿Sabes a qué lugar corresponde esta fotografía?

erantzunak ona bidali:

envía la respuesta a:

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Asmatzen daberen persona guztiak zozketan sartuko dira; izan be, "Geure Berbategi" proiektuaren barruan dagoan **Angel Larrea** eta **Juan Rekalderen "Arratia inguruko Hiztegia"** dalakoaren hiru ale oparituko dira.

Todas las personas acertantes entrarán en el sorteo en el que se regalarán 3 ejemplares de "**Arratia inguruko Hiztegia**", de **Angel Larrea** y **Juan Rekalde**, incluido en el proyecto "Geure Berbategi".

